

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Mintzapraktika

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-05-17

1	Izena	Euskaltzaleen Topagunea eta AEK
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Aisia, praktika
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	Euskaltzaleen Topagunea: 94 621 57 80 mintzapraktika@topagunea.org AEK: 618 574 466 praktikatu@aeik.eus
5	Sare sozialetako kontaktuak (Webgunea, Facebook, Twitter...)	www.mintzalaguna.eus @topagunea www.praktikatu.eus / @praktikatu

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

- Praktikaren azalpena**

Mintzalagun egitasmoetan, euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dira. Horrela, kideek hizketarako jariora lortzen dute, euskaltzaleen sareak indartu eta euskararen erabilera eraginez.
- Praktikaren azalpenaren laburpena**

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzen dituzte mintzapraktika egitasmoek. Mintzalagunak bospasei laguneko taldetan biltzen dira, astean ordubetez, eurek aukeratutako gaien inguruan euskaraz aritzeko. Aisialdian batzen dira, leku publikoetan (kafetegiak, parkeak eta abar), eta lagunartean aritzen dira giro atsegin, hurbil eta parte hartzailean.

Gaur egun 6.000 kide daude Euskal Herriko 80 herri eta eskualde baino gehiagotan. Tokiaren arabera, Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide, Solaskide zein Solaslagun izena hartzen dute. Mintzapraktika egitasmoen helburu nagusiak, parte hartzaileek euskaraz hitz egiteko erraztasuna eta jariora lortzea eta tokian tokiko euskaltzaleak saretzea dira.

Bi motatako euskaldunak biltzen dira Mintzapraktikan. Batetik, euskaraz bizitzeko ohiturarik ez dutenak: egunerokoan beren inguruan hitz egiteko aukerarik ez daukatena, euskara ikasten ari direnak, aspalditik euskaraz hitz egin ez eta jariora berreskuratu nahi dutenak, inguru euskaltzalean murgildu nahi dutenak...

Programak euskaraz aritzeko trebakuntza eta aukera ematen die parte hartzaile hauei. Bestetik, euskaldun askok hizkuntzaren normalizazio

prozesuari beren ekarpena egin nahi diote, ekimen hauetan zailtasunak dituzten euskaldunei elkarriketaren bidez lagunduz. Gainera, mintzapraktika programek tokian tokiko euskaldun sareak indartzen dituzte.

Talde bakoitza astean ordubetez biltzen da, gutxienez. Baina astean behineko hitzorduaz gain, noizean behin mintzapraktika taldeetako kideek elkar ezagutzeko eta harremanen sarea zabaltzeko ekintza osagarriak antolatzen dira: ikastaroak, irteerak, bazkari eta afariak, ikuskizunak, familia planak eta abar. Era berean, mintzalagun taldeen aldaera bereziak daude, hala nola gurasoz osatutako taldeak (gurasolaguna), kirola egiteko taldeak eta euskalkiak lantzeko taldeak.

Ohiko mintzalagun taldeez gain, internet bidez mintzapraktikan aritzeko MINTZANET ekimena sortu zen 2012an. Izena ematen duten kideek binaka hartzen dute parte, skype bidez euskaraz arituz. Ekimen honek, munduan sakabanatuta dauden euskaldunei gainontzeko kideekin harremanetan jartzeko aukera eman die. Gaur egun 350 parte hartzaile daude.

Lehen mintzalagun taldeak Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkarteak sortu zituen, 1993an. Ordutik ia Euskal Herri osora hedatu dira.

3 Aurrekariak
(Inplementazioa
burutzeko motibazioa,
identifikatutako beharrak)

Euskararen erabileran eragitea da mintzalagun egitasmoak gauatzeko motibazio nagusia.

Egitasmoen sorreran, 1993an, Donostiako Bagera elkarteak kideek ikusi zuten euskara ikasleek eskola orduetatik kanpo ez zutela euskaraz egiten. Honi aurre egiteko, ikasleei konfiantzazko lagun bana eskaintzen hasi ziren, eskola orduen dinamika alde batera utzi eta euskara komunikatzeko zein gizarte bizitza garatzeko tresna dela ikustarazteko.

Era berean, zenbait lekutan euskaldunak oso sakabanatuta bizi dira, eta beren inguruan ez dute euskaraz aritzeko aukerarik izaten. Mintzapraktika egitasmoetan euskaldun horiek saretzen dira, hutsune hori betetz. Gainera, euskaraz hitz egiteko jariora lortu nahi duten kideek lasaitasunez praktikatzeko konfiantza eremu bat behar izaten dute.

Azken finean, euskaldun askoren euskaraz bizitzeko nahiari, gizartearen premia bati, erantzuten dio Mintzapraktikak.

4 Helburuak

Mintzalagun egitasmoek, parte hartzaileei eta gizarte osoari dagozkion helburu zehatzak dituzte:

Parte hartzaileei dagozkien helburuak:

- Euskal hiztunei erabilerarako esparruak eskaintzea, egitasmoan hitz egiteko aukera izanez. Zenbait kasutan egunerokoan euskaraz aritzeko lagun falta izaten dute mintzalagunek. Familian, lagun taldean, lanean edota ingurunean euskaldun gutxi duten euskal hiztunei, hutsune hori betetzeko aukera eskaintze diete mintzalagun egitasmoek
- Norberaren euskara maila hobetzea eta ikas prozesua azkartzea, talde txikietan praktikatu. Hizkuntza aldaera ez formalera hurbiltzeko aukera eskaintzen da gainera

- Normalizazio prozesuan eragile aktibo izatea, praktikatzeko beharra duten kideei lagunduz zein norbere gaitasuna landuz. Gainontzekoei euskarazko harreman sareetara hurbiltzeko lagunduta, euskal komunitatea zabaldu eta trinkotzen da
- Euskararekiko motibazioa areagotzea, autokonfiantza indartuz eta bizipen positiboak eskainiz. Mintzapraktika programetan garatzen den jarduera oso lotuta dago emozioekin. Harreman berriak eginez, aisialdia eta bizitza bera aberastuz, euskarari funtzio komunikatiboa aitortzen zaio eta ondorioz motibazioa areagotzen da

Gizarteari begirako helburuak:

- Euskal hiztunen kopurua handitzea, parte hartzaileak ohiko euskal hiztun bihurtuz. Horrela euskal hiztunok osatzen dugun komunitatea hazten da
- Euskarazko harreman sareak sortzea, ehuntzea eta erabilera gune berriak irabaztea. Euskaltzaleen arteko harremana bultzatu eta leku publikoetan parte hartuz. Auzo, herri eta hirietan “modu naturalean” sortzen ez diren harreman sareak martxan jarri eta “natural” bihurtzen ditu, kale erabilera handituz. Egitasmo hauek martxan dauden lekuetan euskararen kaleko presentzia handitu egiten da
- Hizkuntzarekiko atxikimendua lantzea, bizipen positibo bidez. Mintzapraktika programak aisialdiko denboran garatzen dira. Egoera ez formalean ematen diren sentimendu eta bizipen atseginak trukatzuz hizkuntzarekiko atxikimendua areagotzeko aukerak ugaritu egiten dira

5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Tokian tokiko euskaldunak. Zuzenean, euskara praktikatzeko beharra dutenak zein hizkuntzaren aldeko ekarpena egin nahi dutenak; zeharka, herriko gainontzeko euskaldunak. Izan ere, parte hartzaileek jarria hartu ahal, herrian euskaraz bizitzeko aukera biderkatzen zaie herritar guztiei.
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	<p>Antolatzaileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaltzaleen elkarteak eta euskaltegiak dira tokian tokiko eragile nagusiak <p>Laguntzaile nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tokian tokiko eskolak, guraso elkarteak, udalak eta bestelako kultur taldeak <p>Babesleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tokian tokiko udal eta mankomunitateak. Euskara arloa • Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Euskara arloa • Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
7	Implementazio-epea	Mintzalaguna egitasmoa 1993ko udazkenean sortu zen, Donostian. Garai hartan, Bagera euskaltzaleen elkarteko kide batzuegan nolabaiteko kezka piztu zen euskaltegiarako ikasleek euskara erabiltzeko zuten beharraz jabetzean.

Donostiako eskalategietan zenbait ikasle euskara ikasten ari zirela baina kalean erabiltzen ez zutela ikusita, hainbat Bagerakidek, zenbait euskara ikaslerekin harremanetan jartzea erabaki zuten. Funtsean, ikasle hauei konfiantzazko lagun bat eskaintzean Bagera elkartearen helburu nagusia honakoa zen: eskola orduen dinamika alde batera utzi eta euskara komunikatzeko tresna dela eta gizarte bizitza garatzeko tresna dela ikustaraztea euskara ikasleei.

Hurrengo urteetan, hainbat eredu aztertuz programa hezurramitzen joan zen: segimendurako fitxak sortzen, taldekide kopuruaren egokitasuna aztertzen, biltzeko maiztasuna zehazten, profesionalizatzeko beharrak sumatzen, eta gainerako euskara elkarteekin esperientzia konpartitzen beste herrietara zabaltzeko bidea eginez. Geroago, Lasarte, Arrasate eta Getxora zabandu zen ekimena eta 1998. urtean programen inguruko lehenbiziko mintegia egin zen Eibarren .Zabalkundearekin batera, Mintzapraktika programak koordinatzeko beharra agerian geratu zen.

Mintzalagun taldeen aldaera bereziak sortu izan dira urteotan, eta batzuek indarra hartu dute: gurasolagunak (gurasoak elkarrekin aritzen dira, seme-alabekin batera askotan) eta Mintzanet (internet bidezko mintzapraktika ekimena) dira nabarmenenak.

Mintzalagun egitasmoak ikasturtean zehar egoten dira martxan, urritik ekainera bitartean. Hala ere, herri askotan udako taldeak sortzen dira, edo ikasturteko taldeek biltzen jarraitzen dute. Gutxienez, astean ordubetez elkartzen dira mintzalagunak. Ekintza osagarriak 1-2 hilabetean behin antolatzen dira.

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	2015-2016 ikasturtean 6.000 mintzalagun elkartu dira astero, Euskal Herriko 80 herri eta eskualdetan, euskaraz aritzeko.
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	<p>Tokian tokiko egitasmoak bideratzeko, ondorengo baliabideak behar dira gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> Taldeak osatu eta koordinatu, ekintza osagarriak prestatu eta izen emate kanpaina bideratzeko duen dinamizatzailea. Jarduna, parte hartzaile kopuruaren eta herri edo eskualdearen ezaugarrien arabera zehazten da Izen emate kanpainarako baliabide ekonomikoak Ekintza osagarrietarako baliabide ekonomikoak <p>Era berean, garrantzitsua da herriko kultur eta hezkuntza eragileak ekimenean inplikatzeko. Kasu gehienetan, jarraipen batzordeak osatzen dituzte (euskaltzaleen elkarteak, euskaltegiak, udala, guraso elkarteak eta abar).</p>
10	Lortutako emaitzak	<p>Urte urte egiten diren balorazio galdetegietan agerienez, mintzapraktika egitasmoak eraginkorrak dira parte hartzaileentzat. Aitortzen dutenez:</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskaraz hitz egiteko jariora lortu eta lotsa galtzen dute

- Gehiago hitz egiten dute euskaraz
- Herriko euskaltzaleen sareetan murgiltzen dira
- Hizkuntzaren normalizazioaren aldeko ekarpena egiten dutela eta, asebeteta sentitzen dira
- Euskaraz bizitzeko nahia handitzen da

2010 urtean Aztiker soziologia ikerlariak egindako ikerketan mintzapraktika egitasmoen eraginkortasuna agerian geratu zen. Era berean, azken urteetako parte hartzaile gorakadak (6.000 gaur egun) adierazten du parte hartzaileen asebetetzea; izan ere, gehienek egitasmoetan jarraitzen dute urterik urtera.

www.mintzalaguna.eus / www.praktikatu.eus

11 Dokumentazioa
erreferentziako
materiala

12 Aurkezpen bideoa

Euskaltzaleen elkarleen izen emate kanpainak:

2015-2016: <https://www.youtube.com/watch?v=S8JhjYnk7zQ>

2014-2015: https://www.youtube.com/watch?v=knFV_82hxyY

2013-2014: <https://www.youtube.com/watch?v=wLDDfM25J-w>

2012-2013: <https://www.youtube.com/watch?v=nHlzbvXkVhM&nohtml5=False>

Praktikatu AEKren izen emate kanpainak:

Partaideen bidaia: <https://www.youtube.com/watch?v=7qmXoxh7VYs>

Zer da mintzapraktika?: <https://www.youtube.com/watch?v=cfrAAU89pN4>

13 Intereseko informazio
gehigarrik

mintzaneet.eus (mintzapraktika on-line)